

# XEDAPEN OROKORRAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 1025

*AGINDUA, 2019ko otsailaren 20koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez bosgarrenez aldatzen baita agindu hau: Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartzen duen Agindua.*

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartu zen. Gerora, ordea, agindu hori aldatu egin zen, 2013ko apirilaren 18ko, 2014ko apirilaren 16ko, 2015eko ekainaren 8ko eta 2017ko apirilaren 11ko aginduen bidez. Helburua zen zerrendak modu eraginkor, bateratu eta operatiboago batean kudeatzea, irakasleek urtero bete behar dituzten lanpostuen espezifikotasunei erantzunez, eta kudeaketa hori beharrizan berrietara egokitzea.

Komeni da 2012ko abuztuaren 27ko Aginduari egin zaizkion aldaketa guztiak biltzen dituen testu berri bat onartzea eta aginduaren zenbait alderdi berraztertea, baina une hauetan premiazkotzat jotzen da, 2019-2020 ikasturtean ordezko izateko hautagai-zerrenden hurrengo urteko birbarematze-prozesua hasi aurretik, aldaketa berri bat egitea irakasle-ordezkogaien zerrendaren egungo kudeaketarekin lotutako hurrengo alderdi garrantzitsu hauei dagokionez: espezialitate zehatz baten betekizuna kentzea Irakasleen Prestakuntzako Masterrean, prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa egiaztatzerakoan, Bigarren Hezkuntzako eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen kidegoaren zerrendei dagokienez; irekita dauden ordezkogaien zerrenden mantentze-arauketa; eta merezimenduen baremoan sartzea haur-hezitzaile gisa izandako esperientzia, bai eta hautaketa-prozeduretan oposizio-fasea gainditzea ere.

Bigarren Hezkuntzako eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoetako izangaien zerrendetan prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa eskatzeari dagokionez, ikusita zerrenda horien antolamenduan orain arte izandako esperientzia, berriz pentsatu behar da zer balio eman behar zaion masterreko espezialitateari zerrenda horiek ordenatzeari begira.

Izan ere, zerrendaren jakintzagaia zein den, harekin zuzeneko zerikusia duen Irakasleen Prestakuntzako Masterraren espezialitatea eta dagokion titulu akademikoa dutenei 1. kidetasun-maila esleitzen zaie oro har, eta horrek berekin dakar masterreko espezialitatea ez dutenei 2. kidetasun-maila esleitzea, nahiz eta batzuen eta besteen hasierako titulazio akademikoa berdina izan. Erabaki hori hartu zen, bere garaian, irakasgaiari dagokion zerrendarekin zuzeneko zerikusia zuten masterreko espezialitateko kredituak balioesteko eta, hala, pertsona horiek masterreko espezialitate jakin hori ez zuten izangaien aurretik egoteko. Alabaina, errealtitatea da Espainiako unibertsitateek prestatu dituzten ikasketa-planetan asko gutxitu dela masterreko espezialitateko kredituen balioa. Horregatik, agindu honen bidez III. eranskina –«Titulazioen eta espezialitateen taula»– aldatzen da, zeina Bigarren Hezkuntzako eta hizkuntzen irakaskuntzako mailen zerrenda bakoitzera sartzeko bidea ematen duten titulazioei buruzkoa baita. Hartara, aurrerantzean, ez dute lehentasunik izango Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako irakasle-lanbideetan aritzeko gaikuntza ematen duen masterraren titulu ofizialeko espezialitate jakin batzuek besteen aldean; hau da, indarrean dagoen araudiaren arabera, nahikoa izango da masterraren titulu ofiziala izatea, ikasitako espezialitatea gorabehera.

Gainera, ezabatu egingo dira aginduaren artikuluetan Irakasleen Prestakuntzako Masterraren tituluko espezialitateari egiten zaizkion erreferentzia guztiak. Eskakizun hori ezabatzearen ondorioz, Bigarren Hezkuntzako eta hizkuntzen irakaskuntzako zerrendetan 2. kidetasun-maila duten hautagaiei 1. kidetasun-maila esleituko zaie, hala dagokion kasuetan; halere, agindu honen xedapen iragankor bakarrean xedatutakoaren arabera, kidetasun-mailaren aldaketa horrek 2019-2020 ikasturtetik aurrera izango ditu ondorioak.

Aldi berean, III. eranskinaren Titulazioen eta espezialitateen taulak eguneratzen dira, eta Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebaZen hauen babesean egindako aldaketak sartzen dira: 2013ko martxoaren 25ekoa, 2014ko apirilaren 9koa, 2015eko apirilaren 20koa, 2017ko martxoaren 16koa, 2017ko apirilaren 11koa eta 2018ko martxoaren 13koa. Hain zuen ere, ebaZen horietan espezialitate jakin batzuk irakasteko gaitasuna ematen duten titulazio berriak jaso ziren, eta lehendik zeuden batzuk aldatu; halaber, honako espezialitate hauetan sartzeko titulazioei dagokionez aldaketak egiten dira: Pedagogia Terapeutikoko, Gizartearentzako Zerbitzuak, Elikagaien Elaborazio Lanak eta Ekipoak, Laborategia eta Diagnostiko Kliniko eta Produktu Ortoprotesikoen Prozedurak.

2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 8. artikuluaren aurreikusitako prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren eskakizunari dagokionez, prestakuntza horren zehaztapenak sartzen dira: irakaskuntza-ondorioetarako baliokide aitortu diren tituluak dituzten pertsonak Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko zerrendetan sartzeko beharrezkoak (dagoeneko indarrean dagoen araudian jasota daudenak). Gainera, artikulu horretan apartatu berri bat sartzen da, atzerrian lortutako titulazioei dagokionez.

Bestalde, ikastetxe publikoetako ordezkapenei aurre egin behar zaienez gero, zerrenden ireki-rien deialdiak mugrik gabe irekita mantendu behar izaten dira. Hori horrela, komeni da zerrenden funtzionamendua garatzea; batez ere, zenbait alderdi espezifiko zehaztu behar dira, kudeaketa seguruagoa eta gardenagoa dela bermatzeko.

Azkenik, I. eranskina –«Merezimenduen baremoa»– aldatzen da. Aurrerantzean, haur-hezitzairen gisa emandako zerbitzuak merezimendu gisa barematuko dira; gainera, zehaztapen batzuk egiten dira merezimendu jakin batzuen egiaztapenari buruz –irakaskuntzako esperientzia eta langile autonomoen esperientzia egiaztatzeari buruz–. Halaber, I. eranskinean sartzen da merezimendu gisa hartzea unibertsitatez kanpoko irakasle-funtzionarioen kidegoetan sartzeko hautaketa-prozesu-tako oposizio-fasea gainditzea; horrela, bateratu egin nahi dira bitarteko irakasleek irakaskuntzan duten esperientziaren balorazioa –horrek hobetu egiten baitu hezkuntza-sistemaren kalitatea– eta hautaketa-prozesuetako oposizio-fasean lortutako emaitza.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko funtzionarioen lan-baldintzen akordio arautzailearen arabera –uztailaren 6ko 185/2010 Dekretuaren bidez onartua–, alderdien artean era negoziatuan eguneratu behar dira instrukzioak, eta halaxe egin da negoziazio sektorialaren bidez.

Horren guztiaren ondorioz, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengo.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 8. artikuluaren –«Hautagaien zerrendetan sartzeko eskakizun espezifikoak»– hirugarren apartatua aldatzea.

Aldatzen da 8. artikuluaren –«Hautagaien zerrendetan sartzeko eskakizun espezifikoak»– hirugarren apartatua, eta honela geratzen da:

«3.– Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 100.2 artikuluan aipatzen den prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa izatea, irakaskuntza bakoitzerako dagokion araudia-ren arabera, prestakuntza hori ziurtatzeko.

3.1.– Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakaskun-tzetan prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren betekizuna betetzeko, nahitaez izan behar da hauetako titulazio, ziurtagiri edo lan-esperientziaren bat:

a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta hizkuntza-eskola oficialetako irakasle-lanbide arautuetan aritzeko gaikuntza ematen duen unibertsitate-masterraren titulu ofiziala, edozein espezialitateko.

b) Honako titulu edo ziurtagiri hauetako edozein, 2009ko urriaren 1a baino lehenago eskuratua:

– Espezializazio didaktikoko lanbide-titulua, irakaskuntzarako trebakuntza-agiria edo irakaskun-tzarako gaitasun-agiria.

– Maisu-maistraren titulua, oinarrizko hezkuntza orokorreko irakaskuntzako diplomaduna, lehen hezkuntzako maisu-maistra, bai eta pedagogia edo psikopedagogiako lizenziadun-titulua eta prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa barnean hartzen duen lizenzia edo titulazio baliokidea-rena ere.

c) 2008-2009 ikasturtea amaitu aurretik irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatu baimenduetan bi ikasturte osotan edo, bestela, 12 hilabetez, jarraian edo etenekin, irakasle gisa aritzea, azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretuak arautzen dituen mailetako eta irakaskuntze-tako irakasle-espezialitateetan.

3.2.– Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko espezialitateetan, zeinen zerrendetan sartzeko aski baita irakaskuntza-ondorioetarako baliokide aitortu diren unibertsitatez kanpoko titulazioak izatea, hautagaiak halako titulazio baliokide bat badauka, prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren betekizuna betetzat joko da, lehen aipatutako kasuez gain, egoera hauek aldi berean gertatzen badira:

– Egiaztagiri ofiziala izatea, frogatzen duena Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 100.2 artikuluan eskatzen den prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baliokide den presta-kuntza baduela –irailaren 23ko EDU/2645/2011 Agindua ezarria–.

– 2014ko irailaren 1a baino lehen irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatu baimen-duetan bi ikasturte osotan edo, bestela, 12 hilabetez, jarraian edo etenekin, irakasle gisa aritzea, dagozkion maila eta irakaskuntzetan.

3.3.– Zerrenda berriak irekitzerakoan, eskakizun hori kendu ahal izango da, baldin eta espezia-litate jakin batzuetan, aurreikuspenen arabera, ezin izango badira postuak eskakizun hori betetzen duten hautagaietkin bete.»

Bigarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 8. artikuluari –«Hautagaien zerrendetan sartzeko eskakizun espezifikoak»– laugarren apartatua gehitzea.

Gehitzen zaio 8. artikuluari –«Hautagaien zerrendetan sartzeko eskakizun espezifikoak»– lau-garren apartatua, eta honela geratzen da:

«4.– Atzerrian lortutako titulazioen kasuan, zerrendan parte hartzeko eskatutako espiniar-titulu zehatzari atzerritar tituluaren homologazioa kreditatu behar da, edo aitorpena, Hezkuntza Minis-

terioak emandako kredentzialaren bidez, haren titulazioak ahalmena ematen diola parte hartu nahi duen zerrendan dagokion irakaskuntzetan eta gaietan lanbide arautua Spainian jardun ahal izateko.»

Hirugarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 10. artikuluaren –«Espezialitatea emateko prestakuntza»– bosgarren paragrafoa ezabatzea.

Ezabatzen da 10. artikuluaren –«Espezialitatea emateko prestakuntza»– bosgarren paragrafoa.

Laugarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 11. artikuluaren –«Baldintzak egiaztatzea»– hirugarren paragrafoa aldatzea.

Aldatzen da 11. artikuluaren –«Baldintzak egiaztatzea»– hirugarren paragrafoa, eta honela geratzen da:

«Kasu bakoitzean eskatutako espezialitatea edo curriculum-lerroa adierazi beharko dute aurkeztutako titulazioek; bestela, titulua eman duen zentroaren ziurtagiri osagarria aurkeztu beharko da, egindako espezialitate edo curriculum-lerroa adierazita, edo, halakorik ezean, ziurtagiri akademiko pertsonala, egindako ikasgaiak adierazita..»

Bosgarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 11. artikuluaren –«Baldintzak egiaztatzea»– bosgarren paragrafoa ezabatzea.

Ezabatzen da 11. artikuluaren –«Baldintzak egiaztatzea»– bosgarren paragrafoa.

Seigarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak 2012ko abuztuaren 27an emandako Aginduaren 13. artikuluari –«Merezimenduak»– hirugarren apartatua aldatzea.

Aldatzen da 13. artikuluaren «Merezimenduak» hirugarren apartatua, eta honela geratzen da:

«3.– Puntuazioen guztirakoan berdinketarik sortzen bada, honako baremo-faktore hauek har­tuko dira kontuan bata bestearen atzetik:

- Ikastetxe publikoetan zerbitzu-denbora gehiago (egunetan adierazita).
- Ikastetxe pribatuetan zerbitzu-denbora gehiago (egunetan adierazita).
- Ikasketa-espedientearen batez besteko nota.
- Beste titulazio batzuk (2.2, 2.3, 2.4 eta 2.5 apartatuen batuketaren ondoriozko puntuazioa).
- Hautaketa-prozesuetan oposizio-fasea gainditzea.

Berdinketak jarraitzen badu, abizenen eta izenaren ordena alfabetikoa erabiliko da; zozketa bat egingo da urtero zer letratatik hasiko den zehazteko.»

Zazpigarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 14. artikuluaren –«Zerrendak eratzeko eta zerrendak beste pertsona batzuetara zabaltzeko deialdi orokorrak»– laugarren apartatua aldatzea.

Aldatzen da 14. artikuluaren –«Zerrendak eratzeko eta zerrendak beste pertsona batzuetara zabaltzeko deialdi orokorrak»– 4. apartatua, eta honela geratzen da:

«4.– Zerrendak irekitzeko deialdiak bukatu ondoren, deitutako prozedurari amaiera emango dion Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren ebazpenak zerrendek mugarik gabe irekita jarraitzea xedatuko du.

Zerrendak irekita jarraituko duela xedatzen duen ebazenetik aurrera, interesdunek aurkeztu ahal izango dute zerrendara edo zerrendetara sartzeko eskabidea, formatu elektronikoan eta [www.irakasle.eus](http://www.irakasle.eus) helbidearen bidez».

Eskabidea osoki bete ondoren, «Eskabidea amaitu eta agiria sortu» apartatua markatuz itxi beharko da, behar bezala balidatuta eta erregistratuta gera dadin.

Zerrendara sartu ahal izateko exijitutako baldintzak egiazatzeko dokumentazioa formatu elektronikoan edo paperezko formatuan entregatu ahal izango da; azken kasu honetan, hiru laneguneko epean entregatu beharko da, eskabidea itxi eta hurrengo egunetik hasita, fotokopia konpultsatuaren bidez, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren ebazpenean adierazten diren tokietan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan xedatutako tokietan.

Behar izanez gero, eskabidea edo dokumentazioa zuzentzeako eskaera egin ahal izango du Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68. artikuluan xedatutakoaren arabera. Eskabide horretan, zer falta den edo zer dokumentazio zuzendu behar den adieraziko da.

Eskabideak sarrera-ordenaren arabera onartuko dira eta aurkezten diren dataren eta orduaren arabera ordenatuko dira.

Eskatzaile bakoitzak «Kontsulta pertsonalizatuak» apartatuan kontsultatu ahal izango du eskaeraren egoera (baloratzearen zain, onartua edo ez onartua); apartatu horretara sartu ahal izateko, haren erabiltzailea eta pasa-hitsa erabiliko ditu. Eskaera onartu gisa agertzeak ordezkogaiari ordezkapenak egiteko deitu ahal izatea ekarriko du, adierazitako ordenaren arabera, betiere libre dauden eta lehentasuna duten ordezkogaiak ez badaude, ondoren adierazten den ordenaren arabera eta onorengoa zerrendetan egoteagatik:

- Urteko birbarematzeen ondoriozko zerrenda orokorra.
- Espezialitatean aukeratze-prozesuetako probak gainditu dituzten pertsonen zerrenda.
- Zerrenda orokorean integratuta ez dauden eta aurreko ikasturteetan ireki diren zerrendak, betiere espezialitatearen, hizkuntz eskakizunaren eta prestakuntza pedagogiko eta didaktikoaren baldintza guztiak betetzen badituzte.

Ordezkogaiari ordezkapen bat egiteko deitzen dioten lehen aldia, exijitutako baldintzak egiazatzeko dokumentazioaren fotokopia konpultsua aurkeztu beharko du tokian-tokiko Hezkuntza Ordezkaritzan, dokumentazioa formatu elektronikoan entregatu badu, zerrendara sartzeko eskabidea egitean.

Gero, prozesu honetan onartu diren pertsonak dagokien urteko birbarematze-prozeduraren ondoriozko zerrenda orokorean sartuko dira, eta ordenatuak izango dira aurkeztu diren merezimenduei esker lortutako puntuazioaren arabera dagokien lekuaren. Birbarematze-prozedura bakoitzari hasiera emango dion Langileak Kudeatzeko zuzendaritaren Ebazpenak zehaztuko du muga-eguna onartutako pertsonak aurkeztutako eskabideak kontutan hartzeko; hori aipatutako prozedura izapidetzeo beharrezko epearen arabera egongo da. Egun hori baino beranduago aurkezten diren eskabideak hurrengo ikasturteko birbarematze-prozesuan sartuko dira.»

Zortzigarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 17. artikuluari –«Zerrenda ohiz kanpo irekitzea»– zazpigarren apartatua gehitzea.

Gehitzen zaio 17. artikuluari –«Zerrenda ohiz kanpo irekitzea»– zazpigarren apartatua, eta honela geratzen da:

«Zerrendak irekitzeko deialdiak bukatu ondoren, deitutako prozedurari amaiera emango dion Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren ebazpenak zerrendek mugarik gabe irekita jarraitzea xedatuko du; 14. artikuluaren 4. apartatuan zerrendak ohiko moduan irekitzen diren kasuetarako ezarrita dauden baldintza berberak izango dituzte.»

Bederatzigarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren azken xedapenetako bigarrena –«Titulazio eta baliokidetza berriak sartzea»– aldatzea.

Aldatzen da azken xedapenetako bigarrena –«Titulazio eta baliokidetza berriak sartzea»–, eta honela geratzen da:

«Agindu honen bidez, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari gaikuntza ematen zaio, premia badago eta dagokion ebazpenaren bidez, sindikatu-ordezkaritzarekin dagokion negoziazioa egin ondoren, ikasturtean zehar eta bereziki birbarematze-prozesu bakoitza hasi aurretik, titulazio berriak sar ditzan; hain zuzen ere, III. eranskinaren titulazioen eta espezialitateen taulan jasotako espezialitateren bat emateko gaitzen duten titulazio berriak. Era berean, lehendik daudenak aldatzeko eskumena ematen zaio, akatsak aurkitzen badira edo dagokion txostena egin bada.

Halaber, gaikuntza ematen zaio Zuzendaritza horri zehatz dezan hautagaiek aurkezten dituzten Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko unibertsitateetako gradu-titulazioek eta III. eranskinaren titulazioen eta espezialitateen taulan agertzen direnek zer baliokidetza izango duten, betiere kontuan hartuta aztergai diren titulazioen ikasketa-planak. Birbarematze-prozesu bakoitzari ekin baino lehen argitaratuko da finkatutako baliokidetzen zerrenda; argitaratu ere, [www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritz/hezkuntza-saila/](http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritz/hezkuntza-saila/) web-orrian eta irakaslegunea ingurunean. Baliokidetza horiek agindu honetan araututako ondorioetarako baino ez dira.

Batzorde bat eratuko da horretarako, kide hauek izango dituena: Hezkuntza Berriztatzeako Zuzendaritzako teknikari bat, Langileriak Kudeatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, Unibertsitate Zuzendaritzako teknikari bat, Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritzako teknikari bat eta Hezkuntza Ikuskaritzako ikuskari bat. Batzorde horrek aztertuko ditu sartze berriak, aldaketak eta baliokidetzak, eta dagozkion proposamenak egingo dizkio Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari. Kasu bakoitzean zer gai aztertu behar den, aholkulari espezialistak izenda daitezke.»

Hamargarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren I. eranskina –«Merezimenduen baremoa»– aldatzea.

Aldatzen da I. eranskina –«Merezimenduen baremoa»–, eta agindu honen eranskinean xedatzen den moduan geratzen da.

Hamaikagarrena.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren III. eranskina –«Titulazio eta espezialitateen taulak»– aldatzea.

Aldatzen da III. eranskina –«Titulazio eta espezialitateen taulak»–, eta agindu honen eranskinean xedatzen den moduan geratzen da.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Zerrendetan sartzeko eta haietan mantentzeko baldintzak aldatzea.

Irakasle-ordezkarenak egiteko hautagai-zerrendan dauden pertsonak, agindu hau indarrean jartzean, zerrenda horretan geldituko dira, eta urteko birbarematze-prozesuen ondoren osatuko

diren zerrendetan ere bai, agindu honek zerrendetan sartzeko baldintzetan egiten dituen aldaketak gorabehera.

**XEDAPEN IRAGANKORRA.–** Prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa egiaztatzen duen masterreko espezialitate zehatz baten betekizuna.

2018-2019 ikasturtean lanpostuak betetzeko, mantendu egingo da prestakuntza pedagogiko eta didaktikoa egiaztatzen duen masterreko espezialitate zehatz baten betekizuna.

**AZKEN XEDAPENA.–** Indarrean jartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Halere, I. eranskinaren 3. apartatuak aipatzen duen puntuazioa 2020-2021 ikasturtean ordezko izateko hautagaien zerrenden birbarematze-prozeduratik aurrera aplikatuko da, eta ikasturte horretatik aurrera izango ditu lanpostuak betetzeko ondorioak.

Haur-hezitzale gisa emandako zerbitzuei dagokienez, 2019-2020 ikasturtean ordezko izateko hautagaien zerrenden birbarematze-prozeduratik aurrera barematuko dira.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 20a.

Hezkuntzako sailburua,  
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

## I. ERANSKINA

## MEREZIMENDUEN BAREMOA

A) Orokorrak.

1.– Irakaskuntzako eta hezkuntzako esperientzia	Puntuazio-mugarik gabe	Egiaztagiriak
1.1.– Euskal Autonomia Erkidegoko, Hezkuntza Ministerioko, beste autonomia-erkidego batzuetako edo Europar Batasuneko estatuen hezkuntza-sareko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan irakaskuntza arautuan, bi hilabeteko aldi bakoitzeko irakasle-esperientzia.	Puntu 1	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-administrazioko ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak ofizioz barematuko dira.</li> <li>- Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko beste hezkuntza-administrazioko ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak egiaztatzeko, izendapenaren edo kontratuaren eta lanpostu-uztearen fotokopia konpultsatuak aurkeztu behar dira, edo, bestela, dagokion hezkuntza-administrazioaren organo eskudunak ziurtatutako zerbitzu-orria.</li> <li>- Europar Batasuneko estatuetako ikastetxe publikoetan emandako zerbitzuak egiaztatzeko, beharrezkoa izango da, gainera, dagokion hezkuntza-administrazioaren agiria aurkeztea —zinpeko itzulpen eta guzti—, ikastetxea publikoa dela eta emandako irakaskuntzak arautuak direla ziurtatzen duena.</li> </ul>
1.2.– Benetan eman diren eta 1.1 apartatuan zenbatu daitezkeen zerbitzuengatik izandako irakaskuntza-esperientziagatik, hilabete bakoitzeko puntu osagarriak jasoko dira, baldin eta zerbitzuak zaitasun bereziko edo intereseko gisa kalifikatutako lanpostuetan eman badira.	0,5 puntu	1.1 apartatuko zerbitzuak bezala egiaztatuko dira, baina zerbitzuak zaitasun bereziko lanpostuetan eman direla adierazi beharko da.

1.– Irakaskuntzako eta hezkuntzako esperientzia	Puntuazio-mugarik gabe	Egiaztagiriak
<p>1.3.a.– Administrazio-baimena duten unibertsitatez kanpoko ikastetxe pribatuetan eta 1.1 apartatuan aipatutakoak ez diren erakundeen mendeko ikastetxe publikoetan irakaskuntza arautuan, bi hilabeteko aldi bakoitzeko irakasle-esperientzia.</p>	<p>0,33 puntu</p>	<p>Ikastetxe pribatuetan emandako zerbitzuak egiaztatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxeko Zuzendaritzak egindako ziurtagiria, Ikuskaritzak ontzat eman, zerbitzuaren iraupena eta irakaskuntza zer mailatan eman den jasotzen duena, edo kontratuaren fotokopia konpultsatua.</li> <li>- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egindako ziurtagiria, ikastetxearen (enpresaren) izena eta alta-aldiak jasotzen dituena.</li> </ul> <p>Europar Batasuneko estatuetako ikastetxe pribatuetan eta Europar Batasuneko estatuetatik kanpoko ikastetxe pribatuetan eta publikoetan emandako zerbitzuak egiaztatzeko, kasuan kasuko herrialdeetako hezkuntza-administrazioek edo organo eskudunek egindako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira —zinpeko itzulpen eta guzti—, non berariaz jaso beharko baitira zerbitzuak ematen egondako denbora, ikastetxearen izaera pribatua, hezkuntza-maila eta emandako jakintzagai, edo kontratuaren fotokopia konpultsatua, aipatutako informazioa zehazten duena.</p>
<p>1.3.b.– Haur-eskola publikoetan (0-3 urte arteko zikloa) haur-hezitzale gisa esperientziagatik bi hilabeteko aldi bakoitzeko.</p> <p>1.3.c.– Haur-eskola pribatuetan (0-3 urte arteko zikloa) eta ikastetxe pribatuetan, administrazio baimenarekin, haur-hezitzale gisa esperientziagatik bi hilabeteko aldi bakoitzeko.</p>	<p>0,33 puntu</p> <p>0,11 puntu</p>	<p>Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira egoera hori egiaztatzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Administrazio publikoak edo kontratatzialeak (titulartasuna publikoa edo pribatua den arabera) egindako ziurtagiria. Ziurtagiri horrek honako datu hauek jasoko ditu derrigorrean: haur-hezitzale gisa zerbitzuak eman diren, bai eta horiek eman diren aldiak ere, edo kontratuaren fotokopia konpultsatua.</li> <li>- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako ziurtagiria, ikastetxearen (enpresa) izena eta alta-aldiak jasotzen dituena.</li> </ul>

1.- Irakaskuntzako eta hezkuntzako esperientzia	Puntuazio-mugarik gabe	Egiaztagiriak
1.4.– Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoen sarera bildutako ikastetxeetan irakaskuntza arautuan bi hilabeteko aldi bakoitzeko irakasle-esperientzia, baldin eta ikastetxea sarera bildu baino lehenago eman bada zerbitzua.	0,5 puntu	1.3.– apartatuko zerbitzuak bezala egiaztatuko dira.

Oharrak.

Ondore horietarako, urtea 360 egun direla eta hilabetea 30 egun direla ulertuko da.

Lanaldi partzialean emandako zerbitzuak lanaldi osoan emandakoentzako puntuazio berberarekin barematuko dira.

Data berean bi ikastetxetan edo gehiagotan emandako zerbitzuen kasuan, onura gehien eragiten dituena soilik hartuko da kontuan.

2.– Prestakuntza akademikoa.			
2.1.– Eskakizun gisa alegatutako titulazioari dagokion espediente akademikoaren batez besteko nota balioetsiko da, honako taula honi jarraikiz	9tik 10era puntu 1 7tik 8,999ra 0,75 puntu 6tik 6,999ra 0,50 puntu 5etik 5,999ra 0,25 puntu	Espedientearen batez besteko nota jasotzen duen ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko da.	Atzerriko titulu homologatuak badira, zinpeko itzulpenarekin batera aurkeztu beharko dira ziurtagiri akademikoak.
2.2.– Bestelako gradu-tituluak edo lizenziaturak	Puntu 1		
2.3.– Beste diplomatura batzuk	0,5 puntu		
2.4.– Master Titulu Ofiziala (urriaren 29ko 1393/2007 EDk arautua)	0,5 puntu		
2.5.– Doktore-titulua	Puntu 1		

Oharrak:

1.– Batez besteko nota zenbakitan agertzen ez bada, baliokidetasun hauek hartuko dira kontuan:

Ohorezko matrikula – 10

Bikain – 9.5

Oso ongi – 8

Ongi – 6.5

Nahikoa, Gainditua, Baliokidetua, Gai – 5.5

2.– Ikasketa-espedienteko batez besteko nota 0 eta 4 arteko zenbaki-eskalan soilik adierazita badago, batez besteko notaren eta taula honen arabera esleituko zaio puntuazioa:

3tik 4ra – puntu 1

2tik 2,99ra – 0,75 puntu

1,50etik 1,99ra – 0,50 puntu

1etik 1,49ra – 0,25 puntu

3.– Espedientean hizkitan eta zenbakitan agertzen bada batez besteko nota, azken hori hartuko da kontuan.

4.– Ikasketa-ziurtagirian batez besteko nota agertzen ez bada, edo ikasketa-ziurtagiri pertsonala igortzen ez bada, eta horren ordez tituluaren fotokopia konpultsatua edo titulua emateko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria aurkezten bada, izangaiaren batez besteko nota «gainditua» dela ulertuko da, eta 0,25eko puntuazioa emango zaio.

5. – 2.2 eta 2.3 apartatuetan ez dira kontuan hartuko maila bakoitzean sartzeko oro har eskatzen diren titulazioak, hauek:

- Haur eta Lehen Hezkuntza: maisu/maistraren, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakaslearen edo Lehen Hezkuntzako maisu/maistraren titulua, edo dagokion gradu-titulua.
- Bigarren Hezkuntza: Arte Plastikoak eta Diseinua (Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen kidegoari erreserbaturiko irakasgaiak), hizkuntza-eskola ofizialako irakaskuntzak, Musikako irakaskuntzak eta Arte Dramatikoaren eta Dantzaren Goi-mailako irakaskuntza artistikoak: doktorearen, lizenziadunaren, arkitektoaren edo ingeniariren titulua edo dagokion gradu-titulua.
- Lanbide Heziketa eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoari eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Lantegiko maisu-maistren kidegoari erreserbaturiko irakasgaiak): diplomatuaren, arkitekto teknikoaren, ingenari teknikoaren titulua edo dagokion gradu-titulua.

Adierazitako tituluetako bat baremaziotik baztertzen bada, izangaia dagoen zerrendako mailaren arabera, dituen gainerako tituluak barematuko dira.

Izangaia zer zerrendatan dagoen, zerrenda horren mailarako goian adierazi tituluetarik bat ere ez badu, eta bai, ordea, zerrenda horretan sartzeko aukera ematen duen maila apalagoko bestelako tituluren bat, azken hori ez zaio barematuko, eta izangai horrek dituen gainerako tituluak zenbatuko dira.

6. – 2.4 apartatuan ez da kontuan hartuko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntza Irakaskuntzetako irakasleen Prestakuntzako unibertsitate-masterra.

3.– Hautaketa-prozesuak gainditzea	Gehienez, 6 puntu	Egiaztagiriak
2019 urtetik aurrera hautaketa-prozesuetan oposizio-fasea gainditzeagatik, unibertsitatez kanpoko irakasle-funtzionarioen kidegoetan sartzeko.	6 puntu	Hezkuntza Sail honek ofizioz barematuko du, baldin eta Hezkuntza Sailak berak deitutako hautaketa-procedurak badira.

Oharrak:

Aipatutako puntuazioa aplikatuko da izangaia dagoen espezialitateen zerrendetan, oposizio-aldia gainditu duen espezialitateari dagokion taldearen barnean (3. artikulua).

B) Honako hauei soilik aplikatuko zaie: Lanbide Heziketaren mailak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoari gordetako irakasgaiak) eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzenak (Arte Plastikoetako eta Diseinuko Lantegiko maisu-maistren kidegoari gordetako irakasgaiak).

4.– Espezialitate-arloko lan-esperientzia	Gehienez, 15 puntu	Egiaztagiriak
Espezialitate-arloan izandako lan-esperientziaren hilabete bakoitzeko.	0,25 puntu	<p>Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira egoera hori egiazatzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Empresak egindako ziurtagiria, zerbitzuen iraupena jasotzen duena, edo kontratuaren fotokopia konpultsatua. Kasu bietan, aurkezten den egiaztagiriak zer lan egin den zehaztu beharko du.</li> <li>- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egindako ziurtagiria, enpresaren izena eta alta-aldiak jasotzen dituena.</li> <li>- Zerbitzuak autonomo gisa eman badira, aurreko bi ziurtagiriez gain, jarduera ekonomikoen gaineko zergan altan dagoela dioen ziurtagiria ere aurkeztu beharko da.</li> <li>- Administrazioaren mendeko ikastetxe publikoetan irakasle gisa egiten duen jarduera bigarren jarduera batekin bateragarria dela adierazten duen ebazpenaren kopia, baldin eta jarduera horiek aldi berean egin badira.</li> </ul>

Oharrak.

Hautagaiak beharrezko titulazioa eskuratu zuen egunetik aurrera hasiko da zenbatzen esperientzia.

Autonomo gisa emandako zerbitzuen kasuan, aipatutako agiriak aztertutakoan ez bada aski egiaztatuta geratu lan-esperientzia, edo ez bada aski egiaztu lan-esperientzia hori hautagaiaren zerrendari dagokion espezialitatearekin lotuta dagoenik, azaldutakoa egiaztu ahal izateko agiri osagariak aurkezteko eskatuko da.

## C) Musikako irakaskuntzari soilik aplikatzeko.

5.– Musika-jarduera.	Gehienez, 15 puntu	
5.1.– Kontzertuak (*).	Gehienez, 15	Jatorrizko programa edo fotokopia konpultsatua edo erakunde antolatzailearen ziurtagiria.
5.1.1.– Kontzertu-aretoetan eta/edo nazioko edo nazioarteko zikloetan emandako kontzertu bakoitzeko, honela parte hartuta:		
1.– Bakarlari gisa.	0,75	
2.– Bakarlari gisa, orkestra edo bandarekin.	0,75	
3.– Talde bateko zuzendari gisa.	0,75	
4.– Ganbera-taldeko musikari gisa.	0,50	
5.1.2.– Beste kontzertu batzuk.	Gehienez, 5. 0,10, kontzertu bakoitzeko.	
5.2.– Orkestra sinfoniko, ganbera-orkestra edo banda bateko kide izatea:	Gehienez, 10. 1 urteko.	Kontratua.
5.3.– Orkestra sinfonikoan, ganbera-orkestran edo bandan lankide gisa jardutea:	Gehienez, 7,5. 0,10, parte-hartzeko bakoitzeko.	Orkestraren ziurtagiria, kontratuak edo programak hautagaiaren izena agertuz gero.
5.4.– Interprete gisa egindako grabazioak:	Gehienez, 7,5	Jatorrizko karatula edo fotokopia konpultsatua, hautagaiaren izena jasotzen duena.
5.4.1.– Bakarlari gisa, bakarlari gisa orkestra edo bandarekin, zuzendari gisa edo ganbera-musikari gisa:	1,25	
5.4.2.– Beste talde batzuk:	0,50	
5.5.– Konpositore gisa egindako grabazioak: – Eskatzaileak grabatutako obra bakoitzeko:	Gehienez, 7,5 1,25	Jatorrizko karatula edo fotokopia konpultsatua, hautagaiaren izena jasoko duena.
5.6.– Konposizioa: 5.6.1.– Eskatzaileak estreinatu duen obra bakoitzeko	Gehienez, 15 0,50	Jatorrizko programa edo fotokopia konpultsatua edo erakunde antolatzailearen ziurtagiria.
5.6.2.– Obra beraren interpretazio bakoitzeko (gehienez, 0,5 puntu, obrako)	0,25	

5.– Musika-jarduera.	Gehienez, 15 puntu.	
5.7.– Nazioko edo nazioarteko lehiaketetan lortutako sariak:	Gehienez, 5	Dagozkien egiaztagirien jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak.
5.7.1.– Lehen saria	1,25	
5.7.2.– Bigarren eta hirugarren saria	0,75	
5.7.3.– Accesita	0,25	
5.8.– Gazte-orkestra batean emandako aldiak  Gazte-orkestretako lan-aldiak (topaketak) espezialitateko tresnarekin	Gehienez, 2,50  (0,25, bakoitzeko)	Dagokion gazte-orkestrak emandako egiaztagiri ofiziala.

#### Oharrak

5.1 apartatuan ez dira sartzen musika-ikastetxeetan irakaskuntza-jarduera gisa antolatutako entzunaldiak edo kontzertuak.

Musika-jarduera barematzeko, batzorde barematzaileak eratu daitezke, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzaren ebatzen baten bidez izendatuko direnak.

## D) Arte Dramatikoaren Goi-mailako irakaskuntza artistikoei soilik aplikatzeko

6.– Jarduera artistikoa: Arte Dramatikoa	Merezimenduak: 15 puntu, gehienez ere.	Aurkeztu beharreko agiriak
6.1.– Aktore gisa izaniko jardun profesionala.	(15, gehienez) 0,75, parte hartzen duen obrako.	Antolatzalearen jatorrizko programa edo jatorrizko ziurtagiria, zeinetan interesdunaren izena agertzen baita.
6.2.– Eszenografiko edo dramagile gisa izaniko esperientzia profesionala.	0,50, obrako	Antolatzalearen jatorrizko programa edo jatorrizko ziurtagiria, zeinetan interesdunaren izena agertzen baita.
6.3.– Antzerki profesionaleko konpainia baten partaide izatea.	(10, gehienez) 1 urteko	Lan-kontratuaren fotokopia konpultsatua.
6.4.– Bestelako jarduerak*	0,25	Ziurtagiriak, kontratuak edo programak, zeinetan izangaiaren izena agertzen baita.
6.5.– Dramagile gisa estreinatutako obrak.	1, obrako	Ziurtagiriak, kontratuak edo programak, zeinetan izangaiaren izena agertzen baita.
6.6.– Lanbide eremuarekin zerikusia duten sariak estatu- eta nazioarte-mailako lehiaketa eta sariketetan.  Lehenengo saria  Bigarren eta hirugarren sariak  Accesita	(5, gehienez)  1,25  0,75  0,25	Dagozkien jatorrizko egiaztagiriak edo horien fotokopia konpultsatua.
6.7.– Arte Dramatikoko Goi-mailako irakaskuntzekin zerikusia duten argitalpenak (elektronikoak edo paperezkoak).  – Arte Dramatikoko Goi-mailako irakaskuntzekin zerikusia duten artikuluak edo liburuen atalak.  – Argitaratutako liburuko.	(7,5, gehienez)  0,25  0,50	Dagozkion aleak

6.– Jarduera artistikoa: Arte Dramatikoa	Merezimenduak: 15 puntu, gehienez ere.	Aurkeztu beharreko agiriak
6.8.– Arte Dramatikoarekin zerikusia duten erakundeetan izandako lanpostuak edo karguak	(2, gehienez) 0,50, urteko	Agintaritza eskudunak eginiko izendapenak edo kargugabetzeak
6.9.– Arte Dramatikoko Goi-mailako irakaskuntzekin zerikusi zuzena duten prestakuntza-ikastaroak, 20 ordukoak gutxienez, eta azken 10 urteetan eginak	(1, gehienez) 0,25, ikastaroko	Dagokion ziurtagiria
6.10.– Europar Batasuneko estatukideetako unibertsitateko ikastetxe publikoan, Arte Dramatikoko goi-mailako irakaskuntza arautuetan emandako bi hileko zerbitzuko	puntu 1	Izendapen edo kontratuaren eta kargugabetzearen fotokopia konpultsatua edo, halakorik balego, zerbitzu horiek eman izana egiaztatzen duen zerbitzu-orria.  Ikastetxea publikoa dela eta emandako irakaskuntza arautuak direla egiazatzen duen unibertsitatearen agiria aurkeztu beharko da – zinpeko itzulpenarekin–.
6.11.– Europar Batasuneko estatukideetako unibertsitateko ikastetxe pribatueta, Arte Dramatikoko goi-mailako irakaskuntza arautuetan emandako bi hileko zerbitzuko	0,33 puntu	Ikastetxeko zuzendaritzak emandako ziurtagiria, zerbitzuaren iraunaldia eta irakaskuntza zer mailatan eman den jasotzen duena, edo kontratuaren fotokopia konpultsatua.  Ikastetxea pribatua dela eta emandako irakaskuntza arautuak direla egiazatzen duen unibertsitatearen agiria aurkeztu beharko da – zinpeko itzulpenarekin–.

\* 6.4 apartatuan bazter uzten dira Arte Dramatikoko ikastetxeetan irakaslan gisa antolatutako jarduerak.

E) Dantzaren Goi-mailako irakaskuntza artistikoei soilik aplikatzeko.

7.– Jarduera artistikoa: Dantza	Merezimenduak: 15, gehienez	Aurkeztu beharreko agiriak
7.1.– Dantzari bakarlari edo zuzendari gisa egindako jardunak.	(15, gehienez) 0,75, parte hartzen duen ekoizpeneko	Antolatzailearen jatorrizko programa edo jatorrizko ziurtagiria, zeinetan interesdunaren izena agertzen baita.
7.2.– Taldeko dantzari gisa edo dantza-gorputz gisa egindako jardunak.	0,50, ekoizpeneko	Antolatzailearen jatorrizko programa edo jatorrizko ziurtagiria, zeinetan interesdunaren izena agertzen baita.
7.3.– Dantza profesionaleko konpainia baten partaide izatea.	(10, gehienez) 1, urteko	Lan-kontratuaren fotokopia konpultsatua.
7.4.– Bestelako jarduerak*	0,25	Ziurtagiriak, kontratuak edo programak, zeinetan izangaiaren izena agertzen baita.
7.5.– Estreinatutako edo koreografo gisa erregistratutako koreografiak.	(15, gehienez) 1, koreografiako	Ziurtagiriak, kontratuak edo programak, zeinetan izangaiaren izena agertzen baita.
7.6.– Lanbide eremuarekin zerikusia duten sariak estatu- eta nazioarte-mailako lehiaketa eta sariketetan.  Lehenengo saria	(5, gehienez)  1,25	Dagozkien jatorrizko egiaztagiriak edo horien fotokopia konpultsatua.
Bigarren eta hirugarren sariak	0,75	
Accesita	0,25	
7.7.– Dantzako Goi-mailako irakaskuntzekin zerikusia duten argitalpenak (elektronikoak edo paperezkoak).  – Dantzako Goi-mailako irakaskuntzekin zerikusia duten artikuluak edo liburuen atalak.  – Argitaratutako liburuko.	(7,5, gehienez)  0,25  0,50	Dagozkion aleak
7.8.– Dantzarekin zerikusia duten erakundeetan izandako postuak edo karguak.	(2, gehienez) 0,50, urteko	Agintaritza eskudunak eginiko izendapenak edo kargugabetzeak

7.– Jarduera artistikoa: Dantza	Merezimenduak: 15, gehienez	Aurkeztu beharreko agiriak
7.9.– Dantzaren Goi-mailako irakaskuntzakin zerikusi zuzena duten prestakuntza-ikastaroak, 20 ordukoak gutxienez, eta azken 10 urteetan eginak.	(1, gehienez) 0,25, ikastaroko	Dagokion ziurtagiria
7.10.– Europar Batasuneko estatukideetako unibertsitateko ikastetxe publikoetan, Dantzako goi-mailako irakaskuntza arautuetan emandako bi hileko zerbitzuko.	puntu 1	Izendapen edo kontratuaren eta kargugabetzearen fotokopia konpultsatua edo, halakorik balego, zerbitzu horiek eman izana egiaztatzen duen zerbitzu-orria. Ikastetxea publikoa dela eta emandako irakaskuntza arautuak direla egiaztatzen duen unibertsitatearen agiria aurkeztu beharko da –zinpeko itzulpenarekin–.
7.11.– Europar Batasuneko estatukideetako unibertsitateko ikastetxe pribatuetan, Dantzako goi-mailako irakaskuntza arautuetan emandako bi hileko zerbitzuko.	0,33 puntu	Ikastetxeko zuzendaritzak emandako ziurtagiria, zerbitzuaren iraunaldia eta irakaskuntza zer mailatan eman den jasotzen duena, edo kontratuaren fotokopia konpultsatua. Ikastetxea pribatua dela eta emandako irakaskuntza arautuak direla egiaztatzen duen unibertsitatearen agiria aurkeztu beharko da –zinpeko itzulpenarekin–.

\* 7.4 apartatuan bazter uzten dira Dantzako ikastetxeetan irakaslan gisa antolatutako jarduerak.

#### Oharrak

1.– Azaroaren 2ko 2984/1972 Dekretuak, abenduaren 12ko 2063/2008 Errege-Dekretuak aldatutakoa, ezarritako betez, ISBN-a edo kasuan kasuko ISSN-a edo ISMN-a izatera behartuta dauden argitalpenek hori ez badute, ez dira balioetsiko, eta ez dira balioetsiko, baita ere, argitalpenaren egilea eta editorea pertsona bera bada.

Argitalpen hauek ez dira barematuko: programazioak, oposizioko ikasgai-zerrendak, unitate didaktikoak, klaseko esperientziak, ikasleentzako ariketen edo lanen bildumak, karrerako irakasgaietako lanak, legeria, ikerlan deskriptibo eta enumeratiboak, egunkarietan argitaratutakoak, hitzaurreak eta iritzi-artikuluak.

2.– Arte Dramatikoa eta Dantza espezialitateen D) eta E) apartatuetan aurreikusitako berariazko merezimenduak barematzeko, batzorde barematzaileak eratuko dira, zeinak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpen bidez izendatuko baitira. Kasu bakoitzean zer gai aztertu behar den, bada, horretarako, aholkulari espezialistak izenda daitezke.

## III. ERANSKINA

## TITULAZIOEN ETA ESPEZIALITATEEN TAULAK

## A) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza.

## Kidegoa: maisu-Maistrak.

Espezialitateak	Tituluak
<b>HAUR-HEZKUNTZA 950</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Maisu-maistraren titulua, Haur Hezkuntzako espezialitatea (1440/1991 ED).</li> <li>- Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua, espezialitatea: Eskolaurrea.</li> <li>- Maisu-maistraren titulua edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + Filosofiko eta Letretako (Hezkuntza Zientziatko atala) edo Filosofiko eta Hezkuntza Zientziatko (Hezkuntza Zientziatko atala) lizenziaturen Eskolaurreko Hezkuntzako edo Eskolaurreko Pedagogiako espezialitatea.</li> <li>- Gradua Haur Hezkuntzan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Maisu-maistraren titulua, Lehen Hezkuntzako espezialitatea (1440/1991 ED).</li> <li>- Maisu-maistraren titulua (1440/1991 ED), edozein espezialitatetan.</li> <li>- Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua, edozein espezialitatetan.</li> <li>- Lehen irakaskuntzako maisu-maistraren titulua (1967ko plana).</li> <li>- Gradua Lehen Hezkuntzan.</li> </ul>
<b>LEHEN HEZKUNTZA 951</b> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua, Euskal Filología espezialitatea.</li> <li>- Maisu-maistraren titulua edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua gehi Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila edo goragokoa Euskararen. (Iku 297/2010 Dekretua, euskararen jakite-maila egiazatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Ereferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena – EHAA, 2010-11-15, eta 47/2012 Dekretua, apirilaren 3ko euskaraz eginndako ikasketa ofizialak aintzat hartzeo eta euskara-maila hizkuntza-tituluuen eta ziurtagirien bidez egiazatzetik salbuesteko dena – EHAA, 2012-04-16).</li> </ul>	
<b>EUSKARA 952</b>	

2019ko otsailaren 26a, asteartea

Espezialitateak	Tituluak
	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Maisu-maistraren titulua edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + Lizentziatura Euskal Filologian edo Gradua Filologian (Euskara), Gradua Euskal Filologian edo Gradua Euskal Ikasketean.</li> <li>- Gradua Lehen Hezkuntzan gehi Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila edo goragokoa Euskaran. (Ikus 29/7/2010 Dekretua, euskaren jakie-maila egiaztatzen duten tituluk eta ziurtagiria balioketu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekaizeko dena – EHAA, 2010-11-15, eta 4/7/2012 Dekretua, apirlaren 3ko, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiazatzen salbuesteko dena – EHAA, 2012-04-16).</li> <li>- Gradua Lehen Hezkuntzan + Lizentziatura Euskal Filologian edo Gradua Filologian (Euskara), Gradua Euskal Filologian edo Gradua Euskal Ikasketean.</li> </ul>
AHOLKULARIA 953	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Maisu-maistraren titulua, Hezkuntza Bereziko espezialitatea (1440/1991 ED).</li> <li>- Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua, Hezkuntza Bereziko espezialitatea.</li> <li>- Maisu-maistraren titulua edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + Lizentziatura Psikologian, Pedagogian, Psikopedagogian edo baliokideetan.</li> <li>- Maisu-maistraren titulua edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua + Gradua Psikologian edo Pedagogian.</li> <li>- Gradua Lehen Hezkuntzan, aipamena edo ibilbidea Hezkuntza Berezian, Hezkuntza Premia Berezietan edo Pedagogia Terapeutikoan.</li> <li>- Gradua Lehen Hezkuntzan + Lizentziatura Psikologian, Pedagogian edo Psikopedagogian.</li> <li>- Gradua Lehen Hezkuntzan + Gradua Psikologian edo Pedagogian.</li> </ul>
ATZERRIKO HIZKUNTZA: INGELESA 954	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Maisu-maistraren titulua, Atzerriko Hizkuntzako (Ingelesa) espezialitatea (1440/1991 ED).</li> <li>- Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua, Ingeles Filologialko espezialitatea.</li> <li>- Maisu-maistraren titulua edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulua gehi Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingeleseko C1 maila edo goragokoa (Titulu horiek jasota daude maiatzaren 15eko 73/2012</li> </ul>

Espezialitateak	Tituluak
<p>Dekretuan, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatueta arloak edo ikasgaiak atzerriko hizkuntzeta emateko hizkuntza gaitasunen eskakizunak ezarri eta tituluak eta ziurtagirriak aitorzeakoan – EHAA, 2012-05-29).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Maisu-maistraren titula edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titula + Lizentziatura Ingeles Filologian edo Gradua Ingeles Ikasketetan, Hizkuntza Modernoetan (Ingeles Ikasketa) edo Lizentziatura, Diplomatura edo Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (B hizkuntza = Ingelesa).</li> <li>- Gradua Lehen Hezkuntzan, aipamena edo ibilbidea atzerriko hizkuntzan (Ingelesa) gehi Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingeleseko B2 maila edo goragokoa (Titulu horiek jasota daude maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuan, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatueta arloak edo ikasgaiak atzerriko hizkuntzeta emateko hizkuntza gaitasunen eskakizunak ezarri eta tituluak eta ziurtagirriak aitorzeakoan – EHAA, 2012-05-29).</li> <li>- Gradua Lehen Hezkuntzen gehi Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Ingeleseko C1 maila edo goragokoa (Titulu horiek jasota daude maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuan, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatueta arloak edo ikasgaiak atzerriko hizkuntzeta emateko hizkuntza gaitasunen eskakizunak ezarri eta tituluak eta ziurtagirriak aitorzeakoan – EHAA, 2012-05-29).</li> <li>- Gradua Lehen Hezkuntzan + Lizentziatura Ingeles Filologian edo Gradua Ingeles Ikasketetan, Hizkuntza Modernoetan (Ingeles Ikasketa) edo Lizentziatura, Diplomatura edo Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (B hizkuntza = Ingelesa).</li> </ul>	
<p>ATZERRIKO HIZKUNTZA: FRANTSESA 955</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Maisu-maistraren titula, Atzerriko Hizkuntzako (Frantsesa) espezialitatea (1440/1991 ED).</li> <li>- Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titula, Frantses Filologiko espezialitatea.</li> <li>- Maisu-maistraren titula edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titula gehi Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko C1 maila edo goragokoa (Titulu horiek jasota daude maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuan, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatueta arloak edo ikasgaiak atzerriko hizkuntzeta emateko hizkuntza gaitasunen eskakizunak ezarri eta tituluak eta ziurtagirriak aitorzeakoan – EHAA, 2012-05-29).</li> <li>- Maisu-maistraren edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titula + Lizentziatura Frantses Filologian edo Gradua Frantses Hizkuntzako Filologian edo Lizentziatura, Diplomatura edo Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (B hizkuntza = Frantsesa).</li> <li>- Gradua Lehen Hezkuntzan, aipamena edo ibilbidea atzerriko hizkuntzan (Frantsesa) gehi Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko B2 maila edo goragokoa (Titulu horiek jasota daude maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuan, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatueta arloak edo ikasgaiak atzerriko hizkuntzeta emateko hizkuntza gaitasunen eskakizunak ezarri eta tituluak eta ziurtagirriak aitorzeakoan – EHAA, 2012-05-29).</li> <li>- Gradua Lehen Hezkuntzan gehi Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko Frantsesezko C1 maila edo goragokoa (Titulu horiek jasota daude maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuan, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatueta</li> </ul>	

2019ko otsailaren 26a, asteartea

Espezialitateak	Tituluak
<p>arloak edo ikasgaiak atzerriko hizkuntzeten emateko hizkuntza gaitasunen eskakizunak ezarri eta titluak eta ziurtagiriaak aitzortekoan – EHAA, 2012-05-29).</p> <p>- Gradua Lehen Hezkuntzan + Lizentziatura Frantses Filologian edo Gradua Frantses Hizkuntzako Filologian edo Lizentziatura, Diplomatura edo Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (B hizkuntza = Frantsesa).</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Maisu-maistraren titulu, Gorputz Hezkuntza espezialitatea (1440/1991 ED).</li> <li>- Maisu-maistraren edo Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomatura titulu + Lizentziatura edo Diplomatura Gorputz Hezkuntzan edo Gradua Jarduera Fisikoaren eta Kirol Jardueraren Zientzietan.</li> <li>- Gradua Lehen Hezkuntzan, aipamena edo ibilbidea Gorputz Hezkuntzan.</li> <li>- Gradua Lehen Hezkuntzan + Lizentziatura edo Diplomatura Gorputz Hezkuntzan edo Gradua Jarduera Fisikoaren eta Kirol Jardueraren Zientzietan.</li> </ul>
